

MUko Unibertsitate Kirol Txapelketa jokatu da Arrasaten

2009/02/20

Mondragon Unibertsitateak bere ikasleentzat zuzendutako kirol egun bat da eta bertan hiru fakultateak elkarren artean lehiatzen dira (GEP, EZF eta HUHEZI). 9 kirol ezberdinetan jokatu dira partiduak, besteak beste futbola, futbol 7, areto futbola, saskibaloia, frontenisa (banaka eta binaka), eskupilota (banaka eta binaka), pala banaka, tenisa banaka eta eskuasha. Gizonen lehiaketak kirol modalitate guztietan izan dira eta emakumeenak ordea, areto futbola, saskibaloia, frontenis banaka eta tenis banaka.

Emaitzei dagokionez, 15 txapelketetatik bederatzi Goi Eskola Politeknikako ikasleek irabazi dituzte eta gainontzeko seirak berriz, Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Zientzietako ikasleek. Tamalez, Oñatiko Enpresa Zientzien Fakultateko ikasleek ez dute garaipenik lortu. Garaile guztiek aukera izango dute datorren martxoaren 5ean Arrasaten ospatuko den IX. Euskadiko Unibertsitate Kirol Txapelketan parte hartzeko. Egun honetan UPV eta Deustoren aurka jokatuko dute MUko ikasleek.

Eguerdian ikasleak MUko jantokira bazkaltzera gonbidatuak izan dira eta honekin batera eguna amaitutzat eman da. Partaide guztiek kamiseta tekniko bat izan dute oparitzat eta irabzleak berriz, jertse bat. Txapelketa honen antolatzaileak gustura daude egunak eman zuenarekin eta baita ikasleen partaidetzarekin ere.

